


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak ez dira aldatu 2024ko urrian

Urte arteko datuei dagokienez (2023ko urritik 2024ko urrira), prezioak % 2,1 hazi dira

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizeak bere horretan jarraitu zuen 2024ko urrian, aurreko hilaren aldean. 2023ko hil beraren aldean, kostuak % 2,1 gehitu dira.

Eraikingintzako eta Obra Zibileko kostuek, beraz, ez dute aldaketarik. 2023ko urriaren aldean, berriz, prezioak % 2,4 igo dira Eraikingintzan eta % 1,1 Obra Zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasak sektoreka Ehunekoa



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren, 2024ko irailaren aldean, **lehengaien** kostuak eta **eskulanarenak** konstante mantendu dira. Urte arteko datuei dagokienez, lehengaien kostua % 1,2 igo da, eta eskulanarena % 5,4.

Lehengaien kostuek ez dute aldaketarik izan, ez Eraikingintzaren sektorean, ezta Obra Zibilaren sektorean ere. Urte arteko bilakaeran, bi sektoreotako lehengaien kostuak % 1,5 igo eta % 0,1 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Urria 2024

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	129,0	0,0	2,1
Eraikinak	128,6	0,0	2,4
Obra zibila	130,9	0,0	1,1
Lehengaiak	130,1	0,0	1,2
Eraikinak	129,5	0,0	1,5
Obra zibila	132,5	0,0	-0,1
Laneskua	125,5	0,0	5,4

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Azaroaren 22a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioak, 2024ko urrian 2023ko urriaren aldean, honako azpisektore hauetan gehitu dira gehien: *Mineral ez-metalikoak* (% 6,4), *Material elektrikoa* (% 3,0) eta *Altzarigintza* (% 2,4). Aldiz, sektoreko lehengaiak diren produktuak ekoizten dituzten azpisektore nagusiak honako hauek izan dira: *Energia elektrikoa eta gasa* (% -29,6), *Petrolioia fintzea* (% -21,4) eta *Mineral ez-metalikoen industria* (% -6,9).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Urria 2024

	m / m-12
Ezmetalezko meak	6,4
Zuraren eta korbxoaren industria	0,5
Petrolioia fintzea	-21,4
Industria kimikoa	0,1
Kautxua eta plastikoa	0,6
Produktu mineral ez-metalezkoak	-6,9
Metalgintza	-2,5
Metalezko artikulak	2,2
Material elektronikoa	2,1
Material elektrikoa	3,0
Makineriaren fabrikazioa	1,3
Altzarigintza	2,4
Energia elektrikoa eta gasa	-29,6

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Azaroaren 22a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62